GEOGRAFIA FISIKOAREN MANIFESTUA

Dokumentu hau gizarteari zuzentzen zaio oro har, informazioa eman dezan, bai eta erakunde eskudunei ere, betearazteko eskaera gisa.

TESTUINGURUA

Geografia Fisikoa, iraultza zientifikoaren hasieratik existitzen den milaka urteko zientzia, eboluzionatzen joan dena, garatu den gizarteekin batera, beti azterketaren xede bezala Lurraren gainazala, ingurune naturalak, lurraldeak, paisaiak eta horietan dagoen eta gertatzen den guztia mantenduz, analisi eta sintesirako tresna nagusi bezala metodo kartografikoak erabiliz, gaur egun analisi espazialeko teknika konplexuetara eboluzionatuak, hala nola Teledetekzioa edo Geografia Informazio Sistemak, baita landa-teknika eta -metodo berrituak ere.

Gaur egungo gizarteak gero eta kontzientzia handiagoa hartzen ari dira gizakiek eragindako klima-aldaketaz, ingurumen-aldaketaz eta aldaketa globalean eta horren ondorioetan duten erantzukizunaz, eta, horren ondorioz, diziplina horren eduki eta metodoek eta haren aurrerapenek interes publiko berritua hartzen ari dira, eta interes hori ikusten da beren ezagutzak gizarte nazionaletara eta nazioarteko gizarteetara transferitzen ari direla Garapenerako Nazioarteko Lankidetza Teknikoaren bidez.

Hala ere, oraindik, lanbideaz eta Geografia Fisikoaren edukiez Espainiako gizartean dagoen ezjakintasuna zabala da, ibaien eta mendien deskribapen hutsarekin lotzen da, XIX-garren mendean lehen mailako eskoletan irakasten zen bezala, alegia.

Lurraldearen zientzia da Geografia Fisikoa, integrala eta integratzailea, alde aplikatuan gaur egungo ezagutza eta teknika analitikoak eta kartografikoak eskainiz, lurralde-plangintza eta kudeaketa ere bere gain hartzen dituena. Hauek biak ezinbestekoak suertatzen dira ingurune naturalaren degradazioa edota arrisku naturalen – areagotzen ari direnak – gertakizunak eta ondorioak prebenitzeko, borrokatzeko eta arintzeko, bereziki klima-aldaketarekin eta haren ondorioekin lotzen

direnak. Gaurkotasun handiko lan-eremuetako batzuk eta lurraldean izandako lorpenak aipatzearren: GF-an egindako lanak eta sortutako aurrerapenek aktiboki laguntzen dutela lurzoruen galeraren aurka eta horien emankortasunaren mantenuan, biodibertsitatearen eta geodibertsitatearen galeraren aurkako borrokan, deforestazioaren eta haren ondorioen aurkako politiketan, uholde ondorioen eta kostaldeen atzerakadaren aurkako lehian, edo deklarazio eta kudeaketa-proposamenen bidez natura-ondarearen kontserbazioan aurrera egiten, esan daiteke.

Intelektualek eta kudeatzaileek aurrekaririk gabeko lurralde-arazoei egin behar diete aurre, barnealdeko lurraldeak eta landa-inguruneak bertan behera uztearen eta biztanleria eta haren jarduerak hiri-inguruneetan eta itsasertzean kontzentratzearen ondorioz. Okupazio desberdin horretatik eratorritako ingurumen-arazoei plangintzatik eta babesetik leheneratzera doazen neurrien bidez egiten zaie aurre, eta neurri horiek lurralde eta paisaia horietan, maila handiagoan edo txikiagoan, elkartzen diren prozesu eta indar naturalen eta antropogenikoen ezagutzatik abiatuta hartzen dira. Gaur egun arreta berezia jartzen zaie paisaia kultural mota batzuei, hala nola: angioak eta abelbideak, zuhaitz-motzak, makal-motzak, landak, sega eta hortz larreak, olibondoak, zapaldak eta paisaia terrazatuak, ohiko moduan erabiltzeari uztean, degradazioan eta galeran sartzen direnak. Espainiako geografia Fisikoko jakintza arloak ikuspegi integratzaile berriak ematen ditu ildo horretan, hala nola eko-geomorfologikoak utzitako laborantza-eremuen eta lurzoruen azterketan aritzen direnak, arro hidrografikoen kudeaketa integratuan, gizarte- eta ingurumen-irizpideak hartzea egokitzapen-kudeaketarako, arriskuen kudeaketari aplikatutako kartografia multianalitikoak egiten (suteak, uholdeak, etab.) eta klima-aldaketaren aldagai anitzeko ereduak sortzen.

Nazioarteko esparruan, Espainiako Geografia Fisikoaren ekarpenek talde eta programa ezberdinekin laguntzen dute, batez ere eremu hauetan: basamortutzean, oihan tropikalen eraldaketan, uren eta lurzoruen kalitatearen galeran, poloetako eskualdeen eraldaketan, ondare integratu historiko eta naturalaren kontserbazioan, etab.

Geografia fisikoko profesionalok lan egiten dugu zuzenean administrazio kudeatzailerentzat ere, erreferentzia zientifiko bihurtzen ari den ikerketa aplikatuarekin etorkizunerako eta hainbat eskalatako beste eredu eta plangintza batzuk egiteko lurralde-antolamenduko planen bitartez, plan sektorialen eta tokiko plangintzaren barruan.

DIAGNOSTIKOA

Arestian azaldutako guztia Geografia Fisikoko ezagutzak eta ezagutza geografikoak orokorrean, Espainiako egungo gizarteetan duten garrantzia argi uzten du, bai eta horiek aurrera jarraitzeko eta

guztiei eraginkortasunez transmititzeko beharra ere. Baina, egia esan, Geografia Fisikoa, eta, oro har, Geografia, DBH-ko eta Batxilergoko curriculumetatik baztertzen ari dira, guztiz desagertu arte: agerian geratu da Geografia Fisikoaren izena eta eduki espezifikoak sistematikoki ezabatzen direla Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren eta Batxilergoaren oinarrizko cirriculuma arautzen eta ezartzen duen legeriatik, unitate didaktikoen tituluetatik eta ikasgaietatik. Geografia Fisikoa, besteak beste, ingurune naturala, ingurugiroa eta ingurunearen ezagutzagatik, lurraren eta ingurumenaren zientziengatik, mundu garaikiderako zientziengatik eta norberaren curriculumeko beste zientziengatik ordezkatzen da.

Era berean, lurralde-plangintzan, beste diziplina batzuen alde baztertzen da geografia fisikoa; lurraldean eta ingurune integratuaren prestakuntzarik gabekoak baino, aldi berean, arlo horretan lege-eskumenak dituztenak.

ESKARIAK

Azaldutako guztiagatik, bigarren mailako prestakuntzak oinarrizko kultura orokorra bermatu behar duela eta pertsona eta profesional gaituak, etikoak eta ingurumenaren eta gizartearen arloko arduradunak prestatu behar dituela kontuan hartuta, gainera, geografiak munduaren egiazko eta globala den irudi bat eman duela, eta unibertsitateak bere curriculum-sisteman zientzien eta letren ezagutzaren banaketa zorrotz eta artifiziala ezartzen duela, eta GF-ak azken esparru horretan duen kokapena mantentzen duen bitartean, Geografia Fisikoko Taldetik (GFT) eta AGE-tik zera eskatzen dugu:

- Geografia Fisikoko irakasgai bat izatea, lurralde, paisaia eta natura edukiekin, Zientzien Batxilergoan, lehen mailako enborreko ikasgaien artean, Biologia eta Geologia irakasgaien maila berean, edo, horren ordez, eduki geografiko fisikoak (espazialak, lurraldekoak, integratuak, sintetikoak) Geografia Fisikoa, Geologia eta Biologia izeneko irakasgai batean biltzea; eta Geografia Fisikoa, Enborreko irakasgaiak multzokatzeko aukera, Biologiaren eta Geologiaren maila berean (Lurraren eta ingurumenaren Zientziak Autonomi Erkidego batzuetan).
- Era berean, Giza eta Gizarte Zientzien batxilergoan Geografia Fisikoa egotea eskatzen dugu, izen horrekin eta bigarren mailako geografiaren maila berean agertuko dena, eta modalitate horretako ikasleei espazio fisikoari, haren prozesu eta legeei eta jarduera sozioekonomikoekin eta historiarekin duten erlazio eta elkarreragin sakonari buruzko ezagutzak emango dizkiena, era horretan, gainera, natura-ingurunearekiko errespetuaren inguruko prestakuntzan lagunduko duena.

- Era berean, DBH-ko lehen eta hirugarren mailetako enborreko irakasgaiak eta DBH-ko 4. mailako, Biologiako eta Geologiako enborreko irakasgaiak Geografia Fisikoa, Geologia eta Biologiako izena aldatzea eskatzen dugu, betiere curriculumean GF-ko gai espezifikoak agertzen badira, hala nola erliebea, klima, Hidrogeografia, Biogeografia eta eduki horien lurralde-ikuspegi integratua eta sintetikoa. Edo Geografia Fisikoa Giza eta Gizarte Zientzien curriculumean sartzea.

Geografo fisikoen kolektiboak erakunde eta instituzio publiko arduradunei Geografia Fisikoa izenarekin identifikatutako eduki espazialak, integratuak eta sintetikoak Espainiako Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasgeletara itzul daitezela eskatzen die, lurralde-prozesuak hobeto uler daitezen, eta GF ikerketa-diziplina izan dadin natura-ingurunearen prozesu integratuetan, lurraldearen antolamendu eta kudeaketa orokorrean eta ingurune fisiko naturalean. Espainiako gizarteak lurraldetasunarekin, abandonuarekin, jarduera sozioekonomikoen iraunkortasunarekin eta aldaketa globalarekin lotutako arazo larriak dituela kontuan harturik hau dena ezinbestekotzat jotzen dugu.